

{ asteari zeharka begira } **Ramon SOLA**

Nafarroako utopikoak

Datorren astean Iruñea izango da berriro ere, 2015ean gertatu zen bezala, ezkerreko independentista bat alkatetzan duen Euskal Herriko hiriburu bakarra. Inork ez zuen sinetsiko duela 75 urte, hiri gris hartan, non, batzuek idatzi zutenenez, ezinezkoa zen Sarasate Pasealekua zeharkatzea apaiz edo soldadu batekin topo egin gabe. Ezta duela 50 urte, 70eko hamarkadan zehar errepresioa aldarrikapen horiek itotzeko gogor erabili zutenean, debeku, kolpe, tiro edo torturen bidez. Duela 25 urte ere pentsaezina zen, UPNren makineria osoak euskararekiko eta nafar izaerarekiko gorrotoaren estrategia abian zuenean eta hala moduz eutsi egin beharko zitzaioela, lubakietatik atera gabe, erresistentzia hutsean, zirudienean. Duela 10 urte ere ez; ETA amaitu ostean ere dena lotua eta ondo lotua erakusten zuten Nafarroako eskuinak eta PSNk, koalizio gobernu eta guzti.

Ezin zen, baina egin da, eta horregatik ezinbestekoa da lehenbizi bizirik irautea eta gero irabaztea ekarri duten utopiko guztiak gogoratzea, eta omentzea ere bai. Lehenengo utopikoa, Maravillas Lamberto, 14 urterekin aita faxisten atzaparretatik kentzen saiatzeko ameskeria eta ausardia izan zuena. Gero, frankismoaren urte latz luzeetan euskararen eta benetako Nafarroari eutsi zioten guztiak: justizia poetikoa da aldaketa politiko hau euskaltzale belaunaldi berri baten eskutik etorri izana. Joseba Asironengan orain gorpuzten den hazia askoren artean landatu dute: langile borrokalari guztiek, Bortzirietatik Erriberainoko nekazari eta abeltzainek, soldadutzaren aurka hura desagerrarazi arte bultzatzen zuten gazte intsumituek, Itoizko edo Bardeetako matxinoek, duela bost mende gertatutakoaren egia berreskuratu zuten historialariek, jai herrikoiak eta euskaldunak mantendu zituzten Iruñeko elkarteek, Udalaren aurrean ikurrina landatu zuten arrantzaletatik bizidunak... Ondo laburbildu du Arnaldo Otegi: Nafarroak badu berezitasun bat euskal

esparruan, abertzaletasunera ezkerretik iritsi delako, ez ezkerreko abertzaletasunetik. Eskuinak bide hori elikatu du: Nafarroan aske izateko abertzale izan behar zen, izan behar da, gainerakoa sumisio hutsa da.

Horiei guztiei esker, sugar hori ez da inoiz itzali, garai politiko berrian indartsu eta ikusgarri berpiztu da eta gaur egun gauzak aldatzeko itxaropenak berotzen ditu, Euskal Herri osoari argia emanaz. Baina pertsona horiek guztiak benetan utopikoak al ziren, Telesforo Monzonek esan eta orain Pello Otxandianok gogoratu duenez? Edo errealistak ziren? Egiazko utopia ez al zen Nafarroa indarrez deserrotu nahi izatea, 1936an lehenik, 1978an gero, 2011n, orain arte? Ez dute lortu, modu guztietan saiatu diren arren. Ziur aski, etorkizunean jada erabili ezin izango dituzten prozedurak barne: tortura, bazterkeria, autogorrotia...

Utopia eta errealtatea, orain ere uztartu beharko diren bi ikuspegi. Urrunera anbizioz begiratzeko utopia ezinbestekoa da, guztiz uniformatu eta indibidua-

Utopikoak edo errealistak ziren hazi hau jarri duten guztiak? Biak batera. Egiazko utopia Nafarroa indarrez deserrotu nahi izatea zen, 1936an, 1978an, 2011n...

lista den mundu honi aurre egiteko Nafarroak baldintza berezi batzuk eskaintzen dituelako: norberaren nortasunaren harrotasuna, espiritu kolektiboa, lan egiteko gaitasuna, apaltasun puntu bat... Baina erreallismoa jokatzeko ezinbestekoa da, sendotu beharreko aliantza politiko jakin batzuei esker etorri delako hau. Lurperatu nahi izan duten Nafarroaren izaera bizirik eta sendo dabil orain, baina herrialde osoak ikaragarri anitza izaten jarraitzen du, bere tamainak adierazten duena baino askoz gehiago, eta bertan inor arrotz ez sentitzea da utopiarantz aurrera egiten segitzeko bide bakarra. •